

PERTSONENGAN OINARRITUTAKO ARRETA

HIZKUNTZEN KUDEAKETA KABIAKO ADINEKOEN EGOITZETAN ETA EGUNEKO ZENTROETAN



Kabia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

KOMUNIKAZIOAREN GARRANTZIA

Era askotakoak dira Kabiako erabiltzaileen beharrak eta garrantzitsuenen artean dago komunikazioa.

Komunikatzea, ezinbestekoa da erabiltzaileek dituzten beharrak ase eta ahalik eta bizitza osasuntsuena izateko. Ondorioz, zainketa prozesuan pisu handia duen aldagaia da komunikazioa eta, horrenbestez, baita hizkuntza bera ere.

Adineko askorentzat naturalena eta eraginkorrena euskaraz aritzea da. Hizkuntza hori darabilte komunikatzeko; eta ez soilik gainontzeko erabiltzaileekin sozializatzeko, baita zaintzaile, erizain eta gainerako profesionalekin jardun ahal izateko ere. Hori dela eta, Kabiak bermatu egin behar du erabiltzaileek behar duten hizkuntza hori erabiltzeko aukera.



Arantza Lekuona
Zabala
Kabiako gerentea

Adinekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako erabiltzaileei arreta integrala eta pertsonalizatua ematea da Kabiaren misioa. Horretarako, ezinbestekoa da erabiltzaileen behar guztiei modu profesionalean erantzun eta beren eskubideak bermatzea. Hori lortzeko, Kabiaren politiken muina dira kalitatezko zaintza eta pertsonengan oinarritutako arreta, eta horiek ezin dira ulertu hizkuntza berdintasuna kontuan izan gabe. Erabiltzaile askorentzat oinarri-oinarrizkoa da behar duten asistentzia beren lehen hizkuntzan jasotzea, askoren kasuan, euskaraz.

ARRISKUAK

Ondo komunikatzeko gai ez izateak, isolamendua, frustrazioa edota depresioa sor dezake. Are gehiago, adineko pertsonak bestelako gaixotasunak ere izan ditzaketela kontuan hartzen bada. Horregatik da garrantzitsua arreta norbere hizkuntzan jasotzea.

Hori hain da horrela, Gipuzkoan ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuetako hitzunik Kabian sartzen direnean ere, haien behar komunikatiboak aintzat hartzen baititu erakundeak.

DIAGNOSIAREN GARRANTZIA

Edozein erabiltzaile ondo zaintzeko, ezinbestekoa da diagnosi zehatzak egitea eta, horretarako, funtsezkoa da adinekoek dituzten sintomak, animoa, egoera... ahalik eta modu zehatzenean adieraztea. Hori norberaren jatorrizko hizkuntzan askoz errazago lortzen dute erabiltzaileek.

ARRETA ETA KOMUNIKAZIOA NORBERE HIZKUNTZAN BERMATZEAK, ADINEKOEI AUKERA EMATEN DIE AUTONOMOAGO ETA DUINTASUNEZ BIZITZEKO

01

Erabiltzaile euskaldunari zaintzaile eta gainerako profesionalekin euskaraz aritzeko aukera emateak, asko laguntzen dio gaztelania ondo ez menperatzeagatik sortutako frustrazioa, autoestimua falta edota segurtasun eza saihesten.

02

Adinekoak asko goxatzen dira arreta integrala beren hizkuntzan jasotzen dutenean, eta horrek, gainera, lasaitu eta gerturatu egiten ditu erabiltzaileen senideak, nabarmen.

03

Erabiltzaile gehienak adineko pertsonak dira eta askori burua ahuldu egiten zaie denborarekin. Haien zat oso garrantzitsua da hurbiltasun eta babes sentzazioa. Adineko euskaldunentzat babes hori asko indartzen da euskararekin.

04

Dementia duten asko, soilik txikitako lehen hizkuntzan komunika daitezke eta batzuek ia-ia euskaraz bakarrik ulertzen dute. Horientzat muga oso handia izan daiteke gaztelaniaz aritu behar izatea.